



jnb

## LAN-ESKAINZA PUBLIKOA

### Bigarren Hezkuntza

2007ko urriaren 2ko Mahai Sektorialaren bileran, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erakunde sindikalei lan-eskaintza publikoko proposamena aurkeztu die, foro horretan aztertu eta eztabaidatzeko. Eskaintza hau, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Hizkuntza-Eskola Ofizialetako espezialitate ezberdinetako 550 lanpostuen gainekoa da.

Hautaketa-prozesuari dagokionez, Hezkuntza Sailak 2007ko martxoaren 16ko deialdian erabilitako antzeko sistema planteatzen du (maisu/maistren kidegorako lan-eskaintzakoa), dagozkion egokitzapenekin, orain deitutako kidegoen ezaugarri propioei erantzuteko eta prozesua hobetzeko asmoz.

Gauzak horrela, lehiaketa-oposizioko sistema erabiliko da, eta Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik eratorritako irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko erregimen iraunkorra aplikagarria izango da, bitarteko pertsonalaren trataera hobe ahalbidetzen duena, bere zerbitzuen balorazio handiago batez eta azterketaren atal bat hezkuntza-administrazioaren txosten batek ordezkatzeko duela.

Ekimenean azaltzen diren berritasun nagusiak honako hauek dira:

- .txandean aurreikuspena, irakasle funtzionarioak goragoko taldean edo talde berean sailkatutako irakaskuntza-kidegoetan sartzeko.
- .eskabideak aurkezteko epearen aurrerapena 2007ko azken hiruhilabetera.
- .programazio didaktikoa, eskabidea aurkeztu eta azterketen arteko epean entregatu. Azterketak 2008ko ekainean hastea aurreikusten da.
- .azterketaren atal bat txosten batez ordezkatzeko hautatzen dutenentzat, unitate didaktikoa berarekin erlazionatutako programazio didaktikoaren aurkezpen-epean entregatzea.

Deialdi hau ere 2007-2011 aldirako eskaintza publikoaren finkatze Planean kokatzen da. Izan ere, Plan horretan hezkuntza-maila ezberdinetako 3.000 lanpostu arte eskaintzea aurreikusi da, euskal irakaskuntza publiko sistemako bitartekoen ratioa aurrekontu-plantillaren % 8 a ez gainditzeko xedez. Eskaintzak gauzatzeak euskal irakaskuntza publikoan enplegua finkatzeaz gain, plantilla eta klaustro egonkorrik izatea ahalbidetuko du eta azken finean, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzen lagundu.

Nolanahi ere, hasieran adierazi bezala, eskaintza honen proposamenaren izaerak zera eragin lezake: erakunde sindikalekin dagoen azterketa-prozesuaren ondorioz lanpostu kopurua zein haien ezaugarriak aldatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 3a